

Kalabazarik handiena



Maiatza da. Gontzal kalean dago amarekin. Gorka eta Izaskun ere kalean daude. Izaskunek esaten dio Gontzali:

—Etorri gurekin jolastera.

—Ez, ezin dut. Erosketak egitera noa amarekin —erantzuten die Gontzalek.

—Ongi da. Udaletxeko enparantzan egongo gara. Gero arte —dio Gorkak.

Azoka jendez gainezka dago. Pil-pilean dago. Amak kalabaza handi bat ikusi du eta esaten dio Gontzali:

—Ikusi duzu hori, Gontzal?

Gontzalek baietz esaten dio. Baina azokan denetik dago eta ama erosten eta erosten ari da. Gontzalek lau poltsa ditu eskuan.

—Erosi hemen! Baratxuri merkeak ditut! —oihukatzen du dendari batek.

—Ez da posible! Zein merkeak. Bakarrik 80 pezeta bailo dute —esaten du gizon batek.

Amak niki bat ikusi du eta Gontzalentzat erosi nahi du:

—Emaidazu bat semearentzat. Oso merkea da eta —dio amak.

—Ez, ez dut nahi. Ez zait gustatzen —esaten dio Gontzalek.

Baina berdin da. Amak erosi egin dio.

Gero harategira doaz eta azkenean, dendariak esaten du:

—Gehiagorik nahi duzue?

Orduan Gontzalek oihukatzen du:

—Ez, mesedez! Gehiagorik ez! Ezin dut!



KAIABAZARIK HANDIENA

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Norekin dago Gorka kalean?

.....

2.- Zertara doa Gontzal bere amarekin?

.....

3.- Non egongo dira Gorka eta Izaskun?

.....

4.- Nola dago azoka?

.....

5.- Zer ikusi du amak?

.....

6.- Zertan ari da ama?

.....

7.- Zenbat poltsa du Gontzalek eskuan?

.....

8.- Zenbat balio dute baratxuriek?

.....

9.- Norentzat erosi nahi du amak niki bat?

.....

10.-Nora joan dira nikia erosi eta gero?

.....